AIARALDEA hemen



GALDER BARBADO:
Barbado eta Zelaiaren aurkako lau urteko espetxe zigorra berretsi du Espainiako Auzitegi Gorenak 3 or.

GEHIGARRI BEREZIA:
Ekainaren 4an ospatuko dute Arabako Txakolinaren festa handia Amurrion



EAJk 5 alkatetza eskuratu ditu eta EH Bilduk 3



OKONDO
JON ESCUZA
EAJ-PNV



ARRANKUDIAGA
-ZOLLO
TXUTXI ARIZNABARRETA
EH BILDU



ARTZINIEGA
JOSEBA VIVANCO
EH BILDU

ARAKALDO
SONIA HIDALGO
ARAKALDOKO TALDEA





LAUDIO
AINIZE GASTAKA
EH BILDU



OROZKO
AITOR IZA
EAJ-PNV



AIARA
GENTZA ALAMILLO
EAJ-PNV



URDUÑA
IKER SANTOCILDES
EAJ-PNV



AMURRIO
TXERRA MOLINUEVO
EAJ-PNV

HAU TES KUN DEAK
AIA RAL DE- AN

herriz herri

Orozko

48 orduko rock maratoiak girotu du Orozko

Argazkiak **Leire Muntion**

Rockaren eskualdeko hiriburua bihurtu da Orozko beste behin ere, Orozko-rock jaialdiaren eskutik. Ostiral iluntzean ireki zituzten kontzertu guneko ateak lehenbiziko aldiz, eta bost talde igo ziren oholtzara: Kristonak, Pinpilinpussies, Los Tiki Phantoms eta John Dealer and The Coconuts. Larunbatean, aldiz, eguerdian piztu zuten giroa herrian. Euskal eszenari buruzko mahainguruarekin hasi zuten eguna, museoan. Garazi Pascual Cuesta filosofian doktoreak dinamizatu zuen solasaldia, eta lau musikarik hartu zuten hitza: Afrika Bibangek, Nerea Alberdik, Ane Barcenak eta Beatriz Perales Fernandez de Gamboak. Ondoren, The Smoke Dealers taldeak rock abesti ezagunen bertsioekin girotu zuten Zubiaur plaza, herri bazkaria baino lehen. Gauean karpara mugitu zuten berriro egitaraua, bertan jo baitzuten Su Ta Gar, Rodeo, Capsula, Lukiek eta Zutik! taldeek. Ondoren, festa luzatu ahal izan zuten bertaratutako rock-zaleek, K-Billy & Go-Freak DJen eskutik.











herriz herri

Amurrio

Galder Barbado eta Aitor Zelaiaren aurkako lau urteko espetxe zigorra berretsi du Espainiako Auzitegi Gorenak



Aste honetan hasiko dituzte bi gazteen aldeko mobilizazioak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Galder Barbado eta Aitor Zelaiaren lau urteko espetxe zigorra berretsi du Espainiako Auzitegi Gorenak. Hala jakinarazi du Ankerkeriari Stop! plataformak sare sozialen bidez. Barbadoren abokatuak azaldu dio Aiaraldea Komunikabideari momentuz ez dela zehaztu espetxeratzeko agindua noiz sartuko den indarrean.

Galder Barbado eta Aitor Zelaiaren lau urteko espetxe zigorra berretsi du Espainiako Auzitegi Gorenak. Hala jakinarazi du Ankerkeriari Stop! plataformak sare sozialen bidez. Barbadoren abokatuak azaldu dio Aiaraldea Komunikabideari momentuz ez dela zehaztu espetxeratzeko agindua noiz sartuko den indarrean.

Mobilizazioak aste honetan

Horren aurrean, "Euskal Herriak "aurrera" egin" behar duela nabarmendu dute. Horregatik, "indarrak biltzera" deitu dute, "ankerkeria" horri aurre egiteko. Aste honetan iragarriko dituzte mobilizazioak. Iragan apirilaren 26an iritsi ziren Galder Barbado amurrioarraren eta Aitor Zelaia gasteiztarraren epaien helegiteak Espainiako Auzitegi Gorenera, bi urteko itxaronaldiaren ostean, baina orain arte ez da publiko egin bertan erabakitakoa. Bi gazteen absoluzioa eskatu zuen defentsak. Fiskaltzak, aldiz, zortzi urteko jatorrizko kartzela zigor eskaera aplikatzea eskatu zion Auzitegi Gorenari. Erakunde horrek, aldiz, Auzitegi Nazionalak jarritako lau urteko kartzela zigorra berrestea erabaki du.

Modu honetan eman dute bukatutzat 2019an abiatutako prozedura judiziala. Urte horretako otsailaren 7an Barbado eta Zelaia atxilotu zituzten, "material lehergarriak" zituen bidoi bat "helburu terroristekin" gordetzea egotzita. Ia sei hilabete igaro zituzten prebentziozko espetxealdian, eta hurrengo urteko urtarrilean epaitu zituzten Auzitegi Nazionalean. Handik astebetera iritsi zen epaia. Epai horren helegitearen ebazpena, aldiz, orain arte luzatu da.

Berrikuntza ugari egongo dira Amurrio Harroren bigarren edizioan

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Iaz egin zuten lehenbiziko aldiz Amurrio Harro eguna, herriko LGTB komunitatea bistaratu eta aldarrikatzeko helburuarekin. Amurrioko gazte batzuk sustatu zuten ekimena, Udalaren laguntzarekin. Arrakasta izan zuen ekimenak eta, ondorioz, aurten errepikatzea erabaki dute antolatzaileek.

Gauzak hala, datorren ekainaren 17an, larunbatean, egingo dute jaiaren bigarren edizioa. Iazko egitarauaren hezurdura mantenduko dute, baina, hainbat berrikuntza txertatuta. Alde batetik, goizean umeentzako jolasak eta tortilla txapelketa egongo dira. Arratsaldean manifestazioa egingo dute, Juan Urrutia plazatik Antolatzaileek aurreratu dutenez, iaz egondako *drag queenak* itzuliko dira herrira, baina bi berri ere egongo dira, "horietako bat, Bambi, herrikoa da, gainera".

Gaua luzatzeko aukera egongo da. Ikuskizunaren ostean Abba Revival, Abba taldearen tributua, igoko da oholtzara, eta DJ 2Mino arduratuko da egunari amaiera emateaz.





babestutako edukia



herriz herri

Aiaraldea

AP-68 autobidearen doakotasunaren aldeko konpromisoak eskatu dizkiete eskualdeko talde politikoei

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Dinamika abiatu zuen AP-68 dohainik plataformak hauteskunde kanpainaren hasieran, autobide horren doakotasunaren alde lerratzea eskatzeko eskualdeko alderdiei.

Orain, kanpaina horren emaitzak plazaratu ditu plataformak. Azaldu duenez, honako talde politiko hauek egin dute bat aldarriarekin: Orain Amurriok, Omniak, Adiek, Aiara Batuzek, Okondo Aurrerak eta Arrigorriaga Garak. Salatu dutenez, ez dute erantzunik jaso EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemosen udal taldeen partetik (Urduña, Orozko, Amurrio, Laudio, Aiara, Okondo eta Arrankudiaga-Zolloko talde politikoei luzatu diete lerratzeko eskaera). Alderdi horiek guztiek erantzuna eman dute, baina euren alderdi egiturak edota Foru Aldundiko ordezkariak baliatuta. "EAJko Ugaoko alkateak soilik erantzun gaitu, bere taldetik defendatzen dituzten argudio berdinekin". Horrez gain, gogorarazi dute Orozkoko Udalean mozioa aurkeztu zenean bertako EAJk alde bozkatu zuela.

Baina hori salbuespena da, jeltzaleek ez baitute bat egin doakotasunaren aldeko aladariarekin, plataformaren arabera. Bi argudio nagusi eman ditu EAJk horretarako: autobidea ez dela diskriminatzailea jende orok berdin ordaintzen duelako eta bidesaria kenduko balitz berotegi efektuko gasen isurketa handitu egingo litzatekeela. Bi argudio horiek gezurtatu ditu plataformak, eta nabarmendu du EH Bildu eta Elkarrekin Podemosek ere aipatu dutela berotegi efektuko gasen afera.

EH Bilduk, aldiz, eta plataformaren arabera betiere, erantzun du 2026ra arte ezin dutela ezer egin, urte horretan amaitzen delako autobidearen kontsezioa. "Argudio hori ponentzia batean agertzen da, EAJ, PSE-EE, EH Bildu eta Elkarrekin Podemosek Arabako Batzar Nagusietan onartutakoa. Ponentzia horrek, laburbilduz, dio Aiaraldeko biztanleok ordaintzen jarraitu behar dugula, eurek erabaki eta onartu arte lurraldeko autobideak nola finantzatu".

PSE-EEk ponentzia hori "kopiatu eta itsatsi" du plataformari emandako erantzunean. Elkarrekin Podemosek, aldiz, garraio publikoaren alde dagoela argudiatu du, eta plataformak erantzun dio, funtsean, gauza batek ez duela bestea kentzen.

> **Plataformak salatu duenez, eskualdeko alderdi politiko independenteek soilik egin dute bat doakotasunaren aldeko aldarriarekin**

PP, aldiz, doakotasunaren alde lerratu da, baina plataformak gogorarazi du alderdi hori izan zela kontsezioa 2026. urtera arte "aldebakartasunez" luzatu zuena.

Ondorioak

Plataformaren aburuz, kanpainaren emaitzak argi uzten du "kasu askotan" udal politikak ez direla herrietatik gidatzen, "Batzar Nagusietan alderdi bakoitzak duen ordezkaritzatik" baizik. Horren aurrean, autobidearen doakotasunaren aldeko mugimenduan dabiltzatenek argi dute euren aldarriekin bat egiten ez duten alderdiek ez dutela euren botorik merezi.



elkarrizketa

“Saharar familiek egin diguten harrera izan da proiektutik jaso dugun gauzarik onena”



LAUDIO IKASTOLAKO 2. BATXILERGOKO IKASLEAK DIRA **TASIO, IRAIA** ETA **ANDER**. APIRILEAN SAHARARA EGIN ZUTEN ELKARTASUN BIDAIA, ETA ESPERIENTZIA KONPARTITU DUTE AIARALDEA KOMUNIKABIDEAREKIN.



Testua eta argazkia
Aimar Gutierrez Bidarte

Apirileko lehengo astean Saharako errefuxiatu kanpamentuetan izan zarete, Esmara proiektuaren barruan. Zertan datza proiektua?

Ander: Esmara proiektua da, Saharara, bertako errefuxiatu kanpamenduetara, bidia bat egiteko proiektua; kulturak elkar trukatzeko, gure laguntza eskaintzeko eta gure esku dagoen guztia egiteko. Duela urtebete jaso genuen hau gauzatzeko proposamena Laudio Ikastolaren partetik. Izan ere, COVID-19aren ondorioz, gure promozioak ez zuen ikasbidaia egiteko aukerarik, eta denok batera bidaia bat egiteko gogoekin geratu ginen. Proposamena jaso eta hamasei lagun animatu ginen proiektua martxan jartzera.

Proiektua finantzatzearen ardura zuen gain hartu duzue. Nolako lana izan da?

Tasio: Proiektua hainbat ekintzekin eraman dugu aurrera, horien artean hemen Faktorian egindako Sahara Eguna. Crowdfunding bideo bat ere grabatu genuen, Rosaliaren *Despecha* abestiari letra aldatuta, arrakasta handia izan zuena. Diru asko lortu genuen horri esker. Egindako lanak merezi izan du, baina lan gogorra izan da. Hainbat plazatan egon gara gure kamisetak eta poltsak saltzen.

Ander: Irudimen asko jarri dugu dirua lortzeko: zozketak, tonbola, bideoak...

Apirilaren 1ean abiatu zineten Saharara. Nolakoa izan da bidaia?

Iraia: Oso bidaia luzea izan zen. Aurreko egunean abiatu ginen Madrilera trenez, eta ordu asko eman genituen Madrilgo aireportuan zain. Izan ere, hainbat arazo tarteko, hegazkina berandu atera zen aireportutik. Bucraara herriraino joan ginen.

Tasio: Gehien harritu gintuen gauzetako bat izan zen, Bucraara iristeko erabili genituen autobusak Euskal Herrikoak edo Kataluinakoak zirela. Elkartasun kanpainetan bidaliak ziurrenik.

Zer nolako lanak burutu dituzue bertan?

Tasio: Proiektua elkartasun bidaia zenez, Anderrek aipatu bezala, hainbat azpiegitura konpontzen aritu gara, besteak beste, bertako udaletxea. Medikamentuak eta bestelako produktuak ere eraman genituen; janaria, arropa...

Euskal Herritik ere eraman dituzue zenbait produktu orduan.

Tasio: Finantziazio iturri gisa bigarren eskuko arropa erosteko azoka antolatu genuen, baina erabaki bertan bildutako arroparen zati handi bat gordetzea eta Saharara eramatea.

Ander: Deialdia zabaldu genuen Ikastolako familien artean arropa biltzeko, eta oso erantzun ona izan zuen.

Bertako familien etxeetan geratu zarete. Nolako esperientzia izan da?

Tasio: Guretzako interesgarriena hori izan da hain zuzen ere, familiekin elkarbizitzea eta kulturen trukaketa hori gauzatzea.

Iraia: Familiek oso ondo tratatu gaituzte.

Ander: Familiengandik jaso dugun harrera izan da proiektutik jaso dugun gauzarik onena.

Harremana mantentzen duzue bertako familiekin?

Ander: Azken egunean telefono zenbakiak eta Instagram kontuak trukatu genituen. Harremanetan jarraitzen dugu eta zelan gauden kontatzen diogu elkarri.

Nolakoa da bizitza errefuxiatuentzako kanpamentu batean?

Tasio: Gogorra. Gure adineko pertsonen prespektibatik ikusita, etorkizunerako oso aukera gutxi dituzte bertan.

Ander: Oso bizitza monotonoa da bertan. Hori da transmititu zigutena, horrela bizi behar izateaz oso nekatutua daudela.

Iraia: Gure adineko oso pertsona gutxi ikusi genituen. Horrek ere harritu gintuen.

Ander: Baldintzak ere ez dira onak. Argindarra duela urte gutxi iritsi zen.

Bertako txoko desberdinak ezagutzeko parada ere izan duzue.

Iraia: Kanpamentuetako ospitale bat bisitatzeko aukera izan genuen. Oso txikia zen, eta oso mediku eta erizain gutxi zeuden bertan.

Baldintzak ez ziren espero genituenak bezain txarrak, baina ez ziren onak.

Ander: Saharar erresitentziaren museoa ere bisitatu genuen. Oso bisita aberasgarria izan zen guretzat. Bertako historia sakonki azaldu ziguten.

Iraia: Guk ideia orokor bat geneukan, eta bisita horrek asko lagundu gintuen bertako errealitatea ulertzeko.

Ander: Oso bizimodu gogorra eta borroka luzea izan dute bertan, eta oraindik ere izaten ari da.

elkarrizketa

Esperientziak bete ditu zuen espektatibak?

Iraia: Ez gindoazen espektatiba handiekin, ez genekien zer topatuko genuen bertan. Baldintza txarragoak espero genituen, baina esperotakoa baino egoera hobea aurkitu dugu.

Zuek aurten abiatutako proiektu honek zer nolako jarraipena izango du aurrerantzean?

Tasio: Gustatuko litzaiguke Ikastolako beste talde bat animatzea proiektuarekin aurrera jarraitzeko. Azken asteetan gelaz gela aritu gara proiektuaren emaitzak erakusten eta harrera ona izan du. Batxilergoko lehenengo mailakoak animatuta daude honezkero jarraipena emateko proiektuari.

Ander: Guk ere bueltatzeko asmoa daukagu, ez dakit Esmara proiektuaren barruan edo gure kabuz egingo dugun, baina egingo dugu.







bertako
igogailuak | ascensores
BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tatik/hileko
IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA
+2.000 bezerok gugan dute konfiantza
945 712 822
bertako.eus

kultura

“Zilegitasuna eman nahi diogu nerabezaroari”



IZARO FONBELLIDA, MIREN JIMENEZ DE ABERASTURI, NEREA IGLESIAS ETA **MADDI SAUTUA** ‘GAZTE-GAZTEAK’ JARDUNALDIEN ANTOLAKETAN MURGILDUTA DAUDE, NERABEEN HITZA ENTZUN ETA HAUEI ESPAZIO BAT ESKAINTZEKO ASMOZ.



Testua eta argazkia
Aimar Gutierrez Bidarte

Zer duzue esku artean?

Maddi: Jardunaldi batzuk prestatzea izan da gure helburua, Aiaraldeko gazteen egoeraren inguruan hausnartzeko, ikusteko zer behar eta zer nolako gabeziak dauden. Ekainaren 4koa entzute fase bat da, nerbaeak erdigunean jarri nahi dituen dinamika zabalago baten barruan.

Nerea: Sentsazio orokortua da, askotan gazte eta nerabeentzako gauzak antolatzen direla, baina aldez aurretik nerabeak entzun edota ezagutu gabe. Hori dela eta, lehenengo urratsa da ekainaren lau hiztordua, gerora begira gauza berriak antolatzeko.

Miren: Nabari dugu Aiaraldean, eta gizartean oro har, hutsune bat dagoela nerabezaroan. Gu aisialdian zentratu gara nagusiki, baina hutsunea orokortua da. Entzute fase hau prestatu dugu haiek entzuteko eta haien kezkak jasotzeko.

Izaro: Egun osoko egitarau bat prestatu dugu. Aurkezpen batekin hasiko gara, gero elkar ezagutzeko dinamika batzuk prestatu ditugu. Hausnarketa txokoak ere prestatu ditugu, galdera batzuen bidez gidatuak. Azkenik, hausnarketaren sakontasun horretatik ateratzeko aisialdiko ekintza batzuk prestatu ditugu ere: ginkana, askaria...

Hutsune batez ari zarete. Zertan datza zehazki?

Izaro: Ikusi dugu badaudela espazio batzuk nagusiki kirolari zuzenduak, eta nerabezaroko aisialdia ulertzeko modu bakar bat nagusitzen dela. Hutsunea nerabezaroak ahalduntzeko espazioetan nabaritzen dugu. Norberak berarentzako zerbait sortzeko eskumena izango duen espazioen falta dago.

Maddi: Gure nerabe esperientziatik sentitu izan dugu ez daukagula espazio bat, ez daukagula zer egin... Entzun ditugu nerabeak esaten Eroskira sartzen direla arratsaldepasa, ez dutelako non egon. Hori oso larria da, eta horren inguruan hausnartu nahi genuen ere.

Izaro: Euria egiten duenean nerabeek ez dute non egon. Tabernak dira aisialdi espazio bakarrak.

Miren: Faktorian zentratuta ere ikusi dugu helduentzako edo haurrentzako ekintzak antolatzen direla gehienbat. Nerabeei eta gazteei zuzendutako ekinzta falta bat dago, eta egoera hori irauli nahian abiatu dugu entzute fasea. Eredu hegemoniko eta normatibo horretatik atera nahi dugu nerabeen aisialdia.

Entzute fase bezala irudikatu duzue ekainaren 4ko ekimena, baina aurretik prozesu lzuea egin duzue.

Maddi: Bai, denbora daramagu nerabeekin elkartzen. ‘Brainstorming’ saioak egin genituen, hainbat nerabeen iritziak jasotzeko. Hortik ateratako ondorioak ari gara orain aplikatzen ekainaren 4ko jardunaldietan praktikan jartzeko, eta baita aurrera begira erabiltzeko ere.

Izaro: Lehenengo biler ahorietatik ateratako ondorio nagusietako bat izan zen harremana egin behar genuela eskualdeko ahalik eta nerabe gehienekin. Publiko anitz bati erantzun nahi diogu. 14 eta 18 urte bitarteko Amurrioko, Laudioko, Orozkoko, Arespalditzako eta Erretes Lantenoko gazteekin elkar trukatu ditugu iritziak eta batu egin dira proiektura.

Zer espero duzue ateratzea ekainaren 4ko jardunaldietatik?

Miren: Batez ere eskualdeko nerabeak ezagutu nahi ditugu, eta eurak ere elkar ezagutzea. Haien nahiak, ametsak, pertzepzioak... entzutea. Hortik abiatuta beharrak identifikatu nahi dugu. Baita Faktoriarekiko duten harremana ulertzea ere, Faktoriak berak duen kutsu instituzionala alboratuz.

Eta epe luzera begira?

Nerea: Ekainaren 4an ateratako ondorio guztiekin aurkezpen bat egingo dugu Faktorian. Bertan izango dira ere soziologia ikasleak. Izan ere, Mirenek ikerketa soziologiko bat abiatu du nerabeen parte hartztea eta aisialdi praktikak ikertzea Aiaraldeko Ekintzen Faktorian. Horren emaitzak aurkeztuko ditugu.

Hortik abiatuta, dinamika berriak jarrikoditugu martxan gazteen sozializazioa uztartu eta asialdi eredu berriak praktikan jartzeko.

Zer garrantzia dauka horrelako egitasmo batek nerabeentzako?

Miren: Azken finean, nerabezaroan zure bizitza eta etorkizuna erikitzen ari zaren heinean aukerak izatea, eta zure burua deskubritzeko espazio desberdinak izatea oso garrantzitsutzat jotzen dugu. Gu ere gazteak izanda hutsune horiek nabaritu ditugu nerabezaroan, eta agian espazio desberdinak zian bagenitu ez genituzke izango orian ditugun zenbait zalantza edota ezinegon.

Zilegitasuna eman nahi diogu nerabezaroari. Askotan ulertzen dugu nerabezaroa trantsizio garai bat bezala, haurtzaroaren eta helduaroaren arteko tarte bat. Nerabezaroa, ordea, bizitzeko eta jarduteko zilegia da, eta errepsetua merezi du. Hori da gure abiapuntua.

kultura

Aiaraldean ere izango da Azkena Rock Festivalen Araba Tour-a



Moonshine Wagon Urduñan eskainitako kontzertu batean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Gutierrez Bidarte


Azkena Rock Festival jaialdi ezaguna ekainaren 15ean, 16an eta 17an izango da Gasteizen, eta Iggy Pop, Melvins edota Calexico bezalako nazioarteko talde ospetsuek joko dute.

Edonola ere, data hori heldu baino lehen, Azkena Rock Festival Tour antolatuko dute eta egitasmoaren bi kontzertuak Aiaraldean izango dira.

Ekainaren 9an, ostiralean, Artziniegako frontoiko aparkalekuan Moonshine Wagon eta Micky and The Buzz taldeak arituko dira. Moonshine Wagon heavy-bluegrass estiloan erreferente bihurtu den taldeak kide aiaraldearra dauka eta, bigarrena, berriz, rock and roll klasikoko boskote bilbotarra da, eta Micky Paianok ditu abeslari ardurak.

Larunbatean, ekainaren 10ean, Laudioko Lamuza frontoian izango dira kontzertuak; alde batetik, Bilboko Los Brazos taldea, power-hirukoa, Xuorum punk-rock taldea, eta tokiko Doctor Lawson taldea.

"Frontoi kulturalaren" inguruko hausnarketa Zumalakarregi etorbidean



Oteizaren figura baliatu dute proiektuaren inguruko hausnarketa sustatzeko. **Kulturzaleak**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Hausnarketa bat proposatu du Kulturzaleak taldeak, Zumalakarregi etorbideko "Bigarren azala" horma-iruditik: Frontoi-kulturalaren inguruko hausnarketa, hain zuzen ere. Iragan uztailaz geroztik hamar esku-hartze artistiko burutu dituzte herriko etorbide nagusiko horman. Hain zuzen ere, horma hori "etorkizunean kultura, gizarte eta kirol-esparru berri bat kokatu beharko litzatekeen lekuan dagoela", azaldu du talde antolatzaileak, eta proiektua jendaurrean aurkeztea erabaki zuten.

Frontoi multifuntzionala

Horma-irudian jasotako proiektua duela urteak Herriaren pilota elkarteak aurkeztutako frontoi multifuntzionalaren proposamena da, udalerriko talde-politiko guztien aho bateko adostasunarekin garatua. "Laudioren etorkizunerako sustatzen dugun etorkizuneko "Sormen Kulturaren Parkea" proiektua osatzen duten ekimenetako bat da frontoi hori. Eta laudioar populazio osoari erakutsi behar zitzaiola pentsatu genuen", adierazi dute Kulturzaleak Elkartetik. "San Roke aldaparen maldan indusketa bat frontoi profesional gisa balio dezakeen espazio bat barne hartzen duen arkitektura integratzeko aprobetxatzen duen proiektua da. Bertan, plaza txiki bat sortzen da, hustutako eskultura gisa, eta bertan, aire zabalean tamaina txikiagoko beste frontoi bat kokatzen da, herritarrei pilotarekiko maitasuna hurbiltzeko. Zumalakarregi etorbidea eta San Roke ermita igogailu baten bidez lotzen ditu eraikina gainera", azaldu du eragile kulturalak proiektuaren inguruan.

Frontoi funtzioa ez ezik, bestelako funtzioak ere aitortzen dizkiote balizko eraikinari: "erabilera anitzeko gune, kontzertu, ikuskizun, azoka eta abarretarako gune". Erabilera anitz horri erantzuteko, hainbat espazio aurreikusi dituzte frontoi multifuntzionalaren barruan: "erakusketa-areto profesional bat, kultura-informazioko gune bat, mediateka bat, kontzertuetarako gune bat eta musika-etxe bat, entsegu eta prestakuntzarako mota guztietako lokalekin". Zumalakarregi etorbidearen eta Lamuza Parkearen arteko komunikazio arteria ere izango litzatekeela adierazi dute ekimenaren sustatzaileek:.

Oteizaren figura

Hausnarketa Oteizaren figurarekin lotu du Kulturzaleak Elkarteak: "Proposamena ezagutu genuenetik, Oteizaren ikuspegiarekin bat egiten duela pentsatu dugu, bere eskultura eta testuen bidez hutsuneaz eta desokupazioaz hitz egiten digunean", azpimarratu dute. "Oteizaren kezka handienetako bat horma eta hesia dira, eta ondorioz, frontoia, euskal nortasunaren ikurra. Horregatik, mural honetan bere irudiari eta pasioei keinu egiten diegu: kultura, kirola eta identitatea".





kirola

“Ikaragarria da aste batean zehar beste mundu batean bazeunde bezala bizitzea”



MARIAN BILBAO EREÑO (Orozko) NDESERT TROPHY PANDA EDITION RAID-EAN PARTE HARTU DU BERRIKI, BERE SENARRA DEN ENRIKE GANZABALEKIN ETA ESKUALDEKO BESTE HAINBAT GIDARIREKIN BATERA.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Zein lasterketatan parte hartu duzue eta noiz izan zen?

Desert Trophy Panda Edition raid-ean hartu genuen parte eta urtero bezala, otsailean izan zen.

Zein postutan bukatu zenuten? Nola baloratzen duzue zuen partaidetza?

Gure mailan, 4x4-koan hain zuzen ere, 3. postuan geratu ginen. Horretaz gain, 4x2-koa eta Adventure izenekoa ere egon ziren.

Orokorrean nahiko ondo moldatu ginen egunik gehienetan baina azken eguneko etapa ez zen erraza izan, eta gainera guk genituen mapak ez ziren bereziki oso onak. Kontua da batzuetan mapa ikusita, bidea, zuk joan nahi duzun tokiraino doala ematen duela baina gero bertara heltzen zarenean, pista bukatu egiten da edo zuri ondo ez datorkizun toki baterantz doa. Honen ondorioz behin baino gehiagotan hartu genituen okerreko bideak eta hainbat denbora galdu genuen, beraz ezin izan genuen, nahi eta postu hobea lortzeko behar beste puntu lortu.

Zenbat egun izan ziren eta zenbat kilometro egin zenituzten?

Otsailaren 17an atera ginen hemendik, eta hurrengo egunean Almerian hartu genuen ferrya Nadorrera joateko. Otsailaren 19an lehenengo etapa egin genuen eta hurrengo egunetan, ondorengoak bostak. Larunbatean Mideltetik berriro Nadorreko portura bueltatu ginen eta iluntzean ferrya hartu genuen bertan. Hurrengo goizean, otsailak 26, Almeriara heldutakoan eta jendea agurtutakoan, etxera bueltatzeko bidea hartu genuen. Beraz, Marokon 7 egun izaten dira baina gu Almeriatik beste muturrean gaudenez, beste bi edo hiru gehiago behar ditugu joan-etorria egiteko. Orotara 2000 kilometro inguru egin genituen Marokon.

Zeintzuk dira baldintzak lasterketa horretan parte hartzeko?

Egia esan Panda auto bat edukiz gero, uste dut edonork har dezakeela parte. Horretaz gain, harea artetik, dunetatik eta paraje ezberdinetatik gidatzeko gogoa izatea eta batez ere, abenturarako gogoa edukitzea, oso garrantzitsuak edo ezinbestekoak direla esango nuke.

Zein izan da zuen arrakastaren sekretua?

Sekretua? Bueno ez dut uste sekreturik dagoenik, nire ustez hiru elementu garrantzitsu daude: alde batetik nabigazioa apur bat menperatzea, zenbat eta hobeto dakizun nabigatzen hobeto gidatuko duzulako pilotua; bestetik, gidatze lanetan ondo moldatzea, arlo horretan ahalik eta arazo gutxien edukitzeko, adibidez dunetan, harea artetik eta toki zailetatik autoa kontrolatzen jakitea oso lagungarria delako; eta azkenik, autoa zaintzea, denbora guztian topean eramaten baduzu eta zaintzen ez baduzu, errazena apurtzea delako eta horrek, hurrengo egunerako konponduta eduki ezean, ezin atera izatea suposatuko lukeelako.

Zein sentsaziorekin bukatu zenuten lasterketa?

Sentsazioa ederra da. Azken finean esperientzia bizitzera joaten gara, gainera autoari ezer apurtzen ez bazaio eta ondo erantzuten badu, egunero atera ahal zara etapan parte hartzera; beraz, hori da gertatu ahal zaizun gauzarik hoberena. Horretaz gain, orokorrean egunez-eguneko lana txukun xamar egitea lortzen baduzu, ba... zer gehiago eska dezakezu?

Zenbat jendek parte hartu zuen proban?

Lehen esan dudan bezala hiru maila egon ziren. Gurean, 4x4-koan, 29 taldek hartu zuten parte, 4x2-koan 32k, eta azkenik, Adventure mailan, 9 izan ziren parte hartu zutenak. Maila honetako parte-hartzaileek ez zuten egin behar beti guk egiten genuen ibilbide bera, errazagoa izaten zen eta etapa modu lasaiagoan eta astiroago egiten zuten, nolabait turismo apur bat egiteko aukeraz gozatuz.

Aiaraldeko gidari gehiagorekin aritu zineten, zer moduz harremana?

Bai, Areta, Laudio eta Amurrioko parte-hartzailez osatutako beste bi ekipo joan ziren. Bat Roge Hinojosak eta Iker Arenazak osatutakoa eta bestea Asier Etxebarriak eta Ruben Bengoak.

Egia esan ferryra sartu orduko elkartu ginen eta bidaia osoa egin genuen seiok batera. Lehenengo momentutik antzematen zen giro ederra gure artean eta harreman polita sortu zen. Etapetan zehar normalean elkarrekin ibiltzen ez ginen arren, gainontzeko denbora tarteetan, afari eta gosarietan, briefingetan, tarte libreetan,... gehienetan batera egoten ginen.



“Azken eguneko etapa ez zen erraza izan, eta gainera guk genituen mapak ez ziren bereziki oso onak”

Zuen lehen aldia izan da?

Ez, guretzat aurtengoa bosgarren aldia izan da. Lehenengoan, 2017an, Enrikek eta Anderrek (gure semeak) hartu zuten parte, eta Naia (gure alaba) eta biok 4x4 ibilgailu batean joan ginen. Handik aurrera Enrike eta biok joan gara parte hartzera, beraientzat zaila delako garai horretan hainbeste egun libre hartzea eta beraien egunerokotasuna apurtzea. Dena den gustatuko litzaiguke egunen batean laurok joatea eta bi autorekin parte hartzea.

Errepikatzeko asmoz zaudete? Zergatik? Zein da lasterketa horren alderik onena zuentzat?

Bai, bai. Honez gero eginda daukagu datorren urteko ediziorako aurretiko izen-ematea.

Esperientzia ikaragarria da, egun osoan zehar etapan zaude zentratuta, egin beharrekoa ahalik eta hoberen egitean eta ahalik eta gutxienetan okertzean. Inguratzen zaituen paisaia zeharo ezberdina da, eta bertako jendeak eta beraien bizitzeko moduak ez dauka inolako zerikusirik gurearekin. Horrek nolabaiteko lasaitasuna ematen dizu eta gezurra dirudien arren, oraindik eta toki batzuetan, egun osoan korrika eta presaka ibili gabe bizitzea posible dela ikusarazten dizu. Ez dakit alderik onena den, baina ikaragarria da aste batean zehar beste mundu batean bazeunde bezala bizitzea. Gauean etxekoekin hitz egiten duzun tarte hori da eguneroko errealitatera bueltatzen zaituena; gainontzeko denbora, ehuneko ehunean bertan duzunaz eta inguratzen zaituenaz gozatzeko eta egunerokotasunaz guztiz deskonektatzeko da.



DRUMGORRI MUSIKA ESKOLA
UDALEKU MUSIKALA
Ekainak 26 - Uztailak 14
(asteko txandak) goizeetan
3-12 urte bitarteko haurrentzat
IZEN EMATEAK 699 88 35 63
Instrumentuak
Musika jolasak
Entzumena
Erritmoa
Ikus-entzunezkoak
Konboak
@drumgorri_musika_eskola



CLÍNICA DENTAL OROZKO
Interesik gabeko finantzaketa
MINIK GABEKO LASER BIDEZKO HORTZ -TRATAMENDUAK
3D DIAGNOSTIKOA
AHO BARNEKO ESKANERRA (CAD-CAM)
Lehendakari Agirre enparantza 8 behea, OROZKO/ 94 661 04 19 688 678 604
www.clinicadentalorozko.com

kirola

JUDOA

Amurrioko Judo klubak Arabako kimuen eta benjaminen txapelketak irabazi ditu



Taldekako kategorian gailendu dira kirolariak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Larunbatean Gasteizko Arriagako kiroldegian Arabako Judo Txapelketa jokatu zuten taldeka kimuen eta benjaminen kategorietan eta bietan irabazi zuen Amurrioko Klubak.

Kimuek eta benjaminek Dulantzi Ikastola, Padre Orbiso, Calasanz eta San Ignacio Klubeko bi taldeak garaitzea lortu zuten. Alain Solaun, Lara Ibarrola, Haize Serrano eta Mikel Charagua dira kimuen taldeko kideak eta Julen eta Martin Ibarrolak, Jagoba Molinuevok, Eneko Alonsok eta Unai eta Eneko Berruetek osatzen dute benjamin kategoriako taldea.

BOLA

Bea Isasi eta Aitor Parrilla, Arabako Bola Txapelketako txapeldun berriak



Bea Isasi eta Aitor Parrila. **Aiara Bolatoki Kluba**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Aiara Bolatoki Klubeko Bea Isasi eta Aitor Parrilla dira Arabako XLVIII. Bolo Txapelketako txapelduank. Horrela ebatzi zuten, asteburuan Laudioko San Roke bolatokian egindako azken jaurtiketen ostean. Martxoaren 11an hasi eta hiru hilabetez luzatu den Arabako txapelketak Aiaraldeko hainbat bolatoki bisitatu ditu. Eskualdeko bola elkarte guztiak aritu dira txapelketaren antolaketan.

Euskal Herriko txapelketa

Txapelketako lehenengo sailkatuek Araba ordezkatuko dute datorren ekainaren 3an Zornotzan jokatuko den Euskal Herriko txapelketan.

SASKIBALOIA

Haur mailako Arabako txapeldun berria da Sugarrak taldea



Araberri eta Jotake menderatu zituen Sugarrak taldean iragan asteburuko lauko finalean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Laudioko Granja kiroldegiak hartu zuen Arabako haur mailako saskibaloi txapelketaren lauko finala iragan maiatzaren 20an eta 21ean, eta garaipena herrian bertan geratu zen.

Lehiaketako azken txanpa larunbatean hasi zen eta Jotake klubak 34-28 gainditu zuen Marianistas lehen finalerdian. Bigarrenean, Sugarrakek erraz gailendu zuen Araberri eta markagailuaren emaitza 64-34 izan zen.

Gauzak horrela, Sugarrak eta Jotake klubek igandean 18:00etan jokatu zuten finala gainezka zeuden harmailen aurrean. Nora Aldekoak eta Oscar Muñoz 'Joko'-k entrenatutako taldea nagusi izan zen markagailuan hasieratik bukaerara, nahiz eta Jotakek inoiz ez zuen amorerik eman. Alegia, azken laurdenean partida estutu zuten eta 4 puntura ere jarri ziren jokalariak.

Edonola ere, etxekoen azken bultzadak 57-48 utzi zuen markagailua. Sugarrak klubeko kideek goraipatu dute jardunaldi polita izan zela eta kiroltasuna eta errespetua izan zirela nagusi arerioen eta zaleen artean.

Behin txapela lortuta, Zumarragan lehiatuko diren Euskadiko Jokoetan parte hartuko du Sugarrak klubak. Han Gipuzkoako eta Bizkaiko garaileekin jokatuko dute hiruki ereduko txapelketan.

Sugarrakeko neskak atarian

Sugarrak klubeko haur kategoriako neskek, ordea, pasa den asteburuan neurtu zituzten indarrak Arabako Final Four-ean eta, tamalez, puntu bakarragatik galdu zuten finalerdietan.

BATZAR
OROKORRA
AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA
Eguna: 2023ko ekainaren 10a, larunbata
Ordua: 10:00etan lehenengo deialdia. 10:30ean bigarren deialdia.
Tokia: Faktorian (Errotari kalea 4-8, Laudio, Araba)
Kooperatibako bazkideei deialdia

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Ekainaren 14an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Aimar

Zorionak Aimar! Zure familiaren partez!

Familia



Ibai

Zorionak! 9 urte bete dituzu eta segitzen duzu betiko zirikatzailea izaten! Egun on bat pasako dugu denon artean!

Unax, aita, ama, aitite eta amatxi



Aizane eta Izargi

Zorionak maitiak! Beste urtebete kaka ematen... Jarraitu horrela eta ez aldatu inoiz, asko maite zaituztegu!

Familia

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Denborapasak

ERRAZA

			9		2	3	6	5
	7					4	2	8
	2	5		3	8			7
		2			3	6		
	6		7	4	9	2	5	3
			2	5	6	8	4	
	4		3			5	8	
3	9	6	5		4			
5		8	6	2	7		3	4

ZAILA

			8	4				
1			6			3		2
	7	2	9					8
	6						7	3
3		7						
5		8	7	3	4			
7	5			8		2		9
			3		6	7		5
				5	7	6		4

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Zozketa



Mendieta elkarteko musika klasikoko kontzertu sortarako sarrera bikoitza zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak

Mendieta elkartearen kontzertu sortarako sarrera bikoit baten zozketa
Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Ekainak 1, 12:00etan.

KOKO RIKO

IRAKURKETA GUNEA



IRULEGIKO ESKUA

Idazlea: Bakarne Atxukarro Estomba eta Izaskun Zubialde Grajirena
Ilustratzailea: Asun Egurza Hernandez
Argitaletxea: Denonartean-Cenlit
2000 urte atzera egingo dugu ipuin honen bitartez, haurrek garai horretan gertatzen ziren kontuez gozatzeko aukera izango dute. Haurrekin garaia lantzeko ipuin oso aproposa.



ILARGIAREN ALABA

Idazlea: Toti Martinez de Lezea
Argitaletxea: Erein
Adina: 12 urtetatik gora
Sorginen munduan bidaiatuko dugu Toti Martinez de Lezearen nobela honetan. Sorginen harrapaketa, beraien inguruan dauden mito, beldur eta kondairak... Sorginek sortzen diguten jakinmina asetzeko nobela interesgarria.

JOLAS GUNEA

ETXEKO ORTUA

ZER DA?
Udan gaude eta orain da momentua ortua jartzeko. Ortu handia jarri nahi izatekotan noski lurzail handia behar da. Baina, badago aukera etxean ortu txikiak egiteko ere. Landareek eguzkiaren indarra behar izaten dute hazteko. Beraz, eguzkiak jotzen duen tokiren baten egotea garrantzitsua da, balkoi bat, lehio bat...
Bestetik ura ere beharko dute eta horregatik ureztatu daitekeen leku batean jarri behar dira.
Etxean ortua egiteko espazio egokia bilatu eta familian egiteko ekintza interesgarria da.



Haurrentzako oso osasuntsua da lurrarekin jolastea eta lurrarekin ibiltzea. Gainera, jaten dutenaren kontzientzia hartu dezakete. Azkenik, askoz ere gusturago jan ditzakete barazkiak beraien eginak baldin badira.

BARREZKO MATERIALA
- Lorontziak
- Lurra
- Haziak edo landareak

AZALPENA
1. Lehenengo pausua etxeko zein puntutan jartzea erabakitzea izango da. Kontuan hartu eguzkia, ura botako dugula...

2. Lorontziak hartu eta dekoratu egin daitezke. Kolorea eman eta bereziak izango diren ontziak prestatu.

3. Lorontzietan lurra bota eta landarea landatu.

4. Landare bakoitzak bere ezaugarriak ditu, Batzuei makiltxoak jarri behar zaizkie gorantza egiteko, Beste batzuk zuzenean hasten dira. Beraz, ondo erabaki zer jarriko den eta zein ezaugarri dituen. Horrela gure etxera egokien doitzen den landarea hartu ahalko dugu.



5. Jartzen ditugun landareen ingutruko informazioa bilatu haurrekin batera eta zaintzen inguruan hitz egin. Etxeko guztiak arduratu behar dira landareak zaintzeaz.

6. Azkenik egunero bisita egin eta fruitua emandakoan sukaldatu eta gozatu.

KOKO RIKO HEZKUNTZA FAKTORIA

KOKORIKO

HEZKUNTZA FAKTORIA

Demokrazioa eta haurrak

Hauteskundeak izan dira eta kanpaina betean egon dira udalak kudeatu nahi dituzten kide ezberdinak. Programetan promesa batzuk ikusi ditut haurrei zuzenduak. Orokorren aldiz egoera beltza da hauentzat. Bozkarik ez dutenez, zertarako kasu egin.

Udal baten egunerokotasunean haurrak bigarren mailako biztanleak direla nahiko argi ikusten da. Politika gutxi daude, haurra erdigunean jarri eta beraien beharrak asetuko dituzten politikak garatzeko. Baina hurrengo lau urteetan garatuko diren politiketan ere promesa gutxi ikusi ditut haurrei zuzenduak, beraz, beti dagoen basamortua handiagoa bihurtuko da.

Haurrentzako politikak, noski haurrek erabaki behar dituzte, beraiek baitira ondo dakitenak zer nahi duten eta zelan kudeatu behar den nahi duten hori. Horregatik ezinbestekoa da, haurren parte hartze errealerako markoak martxan jartzea, non haurrak diren marko horren gidaritza eta egunerokotasuna kudeatzen dutenak, haurren parte hartzean adituak diren profesionalen laguntzarekin. Parte hartze prosezu hauek gainera, haurrei boterea ematetik habiatu behar dira, hau da, sortzen diren marko hauek erabakiorrak izan behar dira.

Ikusi izan ditut eskualdean, haurren udalak edo egun batez udalera joatea aldarrikapenak egitera. Hau planteatzen den moduan, iraingarria da haurrentzako. Alde batetik, ez direlako kontuan hartzen bertan esandakoak eta anekdotetan geratzen direlako. Bestetik, askotan heldu batek prestatutako diskurtsoa botatzen dutelako. Azkenik, proposamen horiek ez badira parte hartze marko batetik habiatu ez direlako inoiz eraginkorrak izango.

Hau esanda beraz bidea polita da, haurrak ahalduntzea ekartzen du, beraiei daukaten boterea eta duten potentzialtasuna ateratzea eta herrian inbertitzea. Nahi dugu haurrek herria maitatzea, bidea lehenengo mailako herritarrak bihurtzetik dator.

Haurrak seguru eta eroso dauden herri batean, denak egongo gara eroso eta segugu.

	I	A			R
	X		A	T	
	R	O	T		
X				A	O
I		T	X	R	
R				O	T


Sudokua

Bete hutsuneak, IRATXO hitza osatzen duten hizkiak (I, R, A, T, X eta O) dagokien tokian jarriz. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Aldea dago!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 10 dira guztira.






Engainagarriak

10 puska hauetatik 5 irudi nagusitik hartuta daude eta besteak ez. Bereiz itzazu.



SOLUZIOAK



Kontra

Aiaraldetik mundura



Jon Txomin Mendia

JAIOTERRIA
AMURRIO (1996)

BIZILEKUA
NEVADA (AEB)

BIDAIAREN XEDEA
UNIBERTSITATEKO LIBURUTEGIAN LAN EGITEA

“Euskaldunez inguraturik, euskaraz mintzo gara ingelesez baino gehiago ia”

Zerk eraman zaitu Nevadara?

Global Training bekari esker iritsi nintzen Nevadara, hemengo unibertsitate publikoko liburutegiaren parte den Jon Bilbao euskal liburutegian nago lanean. Ekialdean familia dudan arren, lehenengo aldia izan da AEBn.

Otsailetik daramat hemen, zuen deiaren zain negoen ja! Familiari eta amamari batez ere, lerro hauek irakurtzeak egingo dion ilusioarengatik bakarrik merezi du (beraz mila esker)... sei hilabeterako eman zidaten beka eta abuztuarte egongo naiz. Oso erraza izan da lekura egokitzea Euskal liburutegian eta Center for Basque Studies-eko (CBS) lankide eta irakasleek oso harrera ona egin zidaten, euskaldunez inguraturik euskaraz mintzo gara ingelesez baino gehiago ia.

Nolakoa da zure egunerokoa?

Eguraldi ona iritsi arte *rutinarioegia* egia esan, lanetik erresidentziara eta buelta. 15 minutu egiten ditut oinez campusa gurutzatzeko; zortea da AEBtan autoa erabili behar ez izatea. Lanean, liburuen katalogazioa eta batez ere bilduma digitalen deskribapenak landu ditut. Hauen artean, poster bilduma izan da gehien landu dudana. Ikusgarria da, non eta Nevadan gure herrialdearen historiaren parte diren 6000 poster baino gehiago aurkitzea; bai diasporako elkarte ezberdinenak baita EHko elkarte, sindikatu, herri mugimendu eta alderdi politikoenak ere.

Zer da Jon Bilbao liburutegia?

1960eko hamarkada bukaeran diasporak ireki zuen liburutegia, oraindik ere frankismo garaian. Euskal kulturari lotutako atxibo-bilduma unikoak dauzka, eta Euskal Herritk kanpo euskal liburu eta artxibo gehien dituen liburtegia da. Bi hilabete geratzen zaizkit. Bueltatu baino lehen euskal ondareari buruz gehiago ikastea eta bizitzea da helburua: Nevada inguruan dauden herri txiagoak bisitatuz, euskal jatetxea, hotelak, "arborglyphs" (artzainek zuhaitzetan egindako marrazki, idazkerak)... Uztailean hemengo herri ezberdinetan antolatzen diren euskal jaietan parte hartu nahi dut ere.

Alde handia igarri duzue Euskal Herriaren eta Nevadaren artean?

Nire pertzepzioa da eta honekin ez dut ezer berria deskubritzen... gizarte indibidualistagoa dela. Guztiok dugu zerbaiten parte izatearen beharra eta haiek talde sentimendu hori unibertsitatearen bitartez lortzen dute, campusak eta bertako giroa herrialdeko gauzarik interesgarriena dira... EHUn pentsaezina litzateke, guk atxikimendu behar hori beste modu batean adierazten dugulako; taldeekiko, herriarekiko edo, eskala txikiagoan kuadrillarekiko. Aurrekoarekin lotuta, estatubatuarrak espontaneoagoak dira, ezezagunekin eta irekitzea, lehenengo momentuan behintzat gutxiago kostatzen zaie eta atzerritarra izanda, horrek asko laguntzen du.

NEVADA



DESKRIBAPENA
AEBko mendebaldeko estatua da. XIX. mendearen bukaeraz geroztik euskal herritar asko joan ziren bertara artzaintzan lan egitera, eta ondare kultural garrantzitsua utzi dute bertan.

DESKRIBAPENA
286.380 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
3,10 milioi biztanle.

DESKRIBAPENA
Ingelesa da ofiziala, baina esukarak ere badu tokia.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · Urduña Orduña · Artziniegako Udala · Arrankudiaga Zollo Udala · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondoko Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio

G! Graf!k
Tellería 2, Laudio (Araba)
94 672 65 43// info@grafiksarea.com

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava · Basalarrina euskal topagunea · ausolan

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

